

Ezpalak

JON TORNER

Maddi Arana biolin jotzaile gasteiztarak irabazi du Orfeoi Fundazioak antolatzen duen Interpretatzaileen Espainiako Lehiaketaren seigarren edizioa. Jesus Guridi kontserbatorioko ikaslea da Arana.

Xarles Bidegain hizkuntzalari eta unibertsitateko irakasleari eman diote Baiona Hiria Ohorezko Saria Baionako Herriko Etxeak eta Eusko Ikaskuntzak. Bidegainekin batera, bi gazte saritu dituzte. Thomas Pierre ikerlariak Euskal Kultur saria jaso du eta Evelynne Cazemajok Bideo Dokumental saria.

Paco Ocaña argazkilaria irudiez osatutako *Iruñea, erretratu bat* izeneko erakus-



keta izango da ikusgai 2008ko urtarrilaren 13ra bitartean Zarauzko Photomuseum argazki eta zinema museoa.

Miguel Angel Alvarez artista tolosarraren margolanak jarri dituzte ikusgai Donostiako Koldo Mitxelenako Ganbara aretoan. 51 marrazki eta 7 mihizez osatutako erakusketan Alvarezk 70eko hamarkadatik 2000. urtera bitartean marraztutako biluziak bildu dituzte. Otsailaren 2a arte egongo da zabalik.

Ari Lehtonen (Tampere, 1982) soinu-jole finlandiarrek nagusitasun osoz irabazi du Arrasate Hiria Nazioarteko XV. Akordeoi Lehiaketako. Bigarren eta hirugarren Harald Oeler alemaniarra eta Ivan Talanin errusiarra izan ziren, hurrenez hurren.

Eloi Beato, Josean de Miguel eta Gorka Aginagalde aktoreek Kunka telebista eta antzerki ekoiztetxea sortu zuten duela urte bete eta orain, Internet bidez ikus daitekeen Kunka.tv telebista jarri dute abian. Zortzi programa izango dira ikusgai gaztelaniazko telebista horretan. Programazioa hamabostean behin aldatuko dute.

Iban Zalduak *Porvenir. Diecisiete cuentos casi políticos* ipuin liburua (Lengua de Trapo) plazaratu du. *Etorkizuna* liburuaren itzulpena da.

Xpression!!! plataformak zuzeneko zirkuitua sortuko du Nafarroan

Xpression!! kultur plataforma duela lau urte sortu zen Gipuzkoan. Musika, antzerki eta arte diziplina guztietako talde ez profesionalak laguntzea du xede, eta horretarako zuzeneko emanaldien zirkuitua sortu du. Jada Gipuzkoako 25 lokalek egin dute bat ekimenarekin. Orain, Nafarroan ere gisa horretako zirkuitua osatu nahi du Xpression!!! plataformak. Lehen urrats bezala, pop-rock lehiaketa antolatu du. Irabazleak Mexikora bidaiara irabaziko du, eta herrialde horretan gutxienez kontzertu bat emango du. Parte hartuko duten talde guztiek, gainera, Nafarroako Xpression!!! zirkuituaren barruan zuzeneko emanaldiak eskainiko dituzte. Pop-rock lehiaketari eta zirkuitu ez profesionalari buruzko informazio gehiago www.xpressionk.net webgunean eskura dezakezue.



Elkarlanean arituko dira Jaurlaritza, Xunta eta Generalitateko kultura sailak

EUSKO JAURLARITZAKO, Kataluniako Generalitateko eta Galiziako Xuntako kultura sailek *Compostelako adierazpena* sinatu dute. Kultur politikan elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu dute hiru gobernuek. Esparru horretako esperientziak trukatzeko eta ekimen bateratuak garatzea da hitzarmenaren xedea. Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak adierazi duenez, "estaturik gabeko nazioen izaera eleaniztuna eta kulturantzatasuna garatzen lagunduko du akordioak". Datorren urtean hasiko dira hitzarmena garatzen.

[Luis Chillida Chillida-Leku museoko zuzendariak Berrian:](#) «Bilboko Arte Eder Museoa gustatzen zait. Ez da Guggenheim bezain ikusgarria, baina dituen edukiak oso interesgarriak dira. Gasteizko Artium oso gustuko dut, urte askoko lanaren emaitza izan baitzen. Dena den, badirudi gaur egungo joera sekulako museo ikusgarriak egitea dela. Halako museoek jendea artera gerturatzeko balio badute, primeran iruditzen zaizkit, baina esan bezala nik nahiago ditut bestelakoak».

[Mikel Urdangarinek Bizkaie! webgunean, Anek idatzi dit zutaz diskoaz:](#) «Elkar diskoe-txearen eskaintza ez zan izan nik pentsetan nebana baina horrezaz gan nik gura nebana egiteko autoprodukzinoa zan modu bakarra (...) Apustu gogorra izan da, arriskua hor-txe dago baina arrisku bako apusturik ez dago. Beste alde batetik, erabateko askatasunez jokatze modua eskaintzen deus autoprodukzinoak; pausu guztien ganean zagoz eta hori beti da ona».